



Ezagutu ABANDO oinez

BILBAO IZAN – Uztaila 2026




ABANDO

**ABANDO****Bilbao**

Eraldatzen ari den hiri baterako proiektuak

Bilbo etengabe aldatzen ari den hiria da, baina berarentzat imajinatu zen guztia ez da eraiki. XIX. mendetik, arkitektoek, ingeniariak eta hirigileek hiribilduaren itxura eta funtzionamendua aldatuko zutela agintzen zuten eraikinak, zubiak, geltokiak, monumentuak eta azpiegiturak proiektatu zituzten. Hala ere, arrazoi ekonomiko, politiko eta teknikoengatik edo, besterik gabe, lehentasunak aldatu zirelako, proiektu horietako asko, Abandoko elizate zaharraren lurretan eraiki behar zirenak, paperaren gainean baino ez ziren geratu.


ABANDO



Hirigintza



XX. mendea hasi aurretik ere baziren Abandoko ibarra eraldatzeko asmo handiko proposamenak. Nabarmenetako bat, Silvestre Pérezek diseinatutako Bakearen Portua proiektua izan zen: portu handi eta komunikazio lotune bihurtzea planteatzen zuena. Hala ere, ekimena ez zen inoiz gauzatu. Zailtasun ekonomikoek, garai hartako tentsio politikoek eta lurra berrantolatzeak zekarren konplexutasun handiek, bai eta trenbideetarako eta itsasorako sarbideek ere, bideraezin bihurtu zuten hura gauzatzea.

Mende bat geroago, Bilbok hiri-aldaketa garrantzitsu bat irudikatu zuen berrir, 1912an proiektatu zen Arte eta Industrien Erakusketa zela eta. Ekitaldiaren helburua hiria bere garapen industrial, ekonomiko eta kulturalaren erakusleho bihurtzea zen, pabiloi, lorategi eta espazio publiko berriekin erakusketa esparru handia sortuz. Hala ere, proiektu horrek ere ez zuen aurrera egin, zailtasun ekonomikoek, antolaketaren konplexutasunak eta unean uneko testuinguru politiko eta sozialak egin ahal izatea eragotzi zuten, eta berrir gauzatu barik geratu ziren Abandoko eremuan aurreikusitako hiri-aldaketak.







Eraikinak

XIX. mendearen amaieraren eta XX. mendearen lehen hamarkaden artean, Bilbok bere oparotasun gero eta handiagoa irudikatzeko eraikin ugari irudikatu zituen. Alberto de Palaciok diseinaturako galeria estalia (1893), Estatuaren Egoitzen Jauregia (1928), Olasoko Markesaren Bizilagunen Etxea (1943), Arte Modernoko Museoa (1961) edo La Polar aseguru etxearen egoitza (1970) bezalako proiektuek hiriari arkitektura moderno eta monumentala emateko borondatea erakusten zuten, garapen ekonomiko eta kulturalarekin bat etorriz. Hala ere, horietako bat ere ez zen eraiki. Zailtasun ekonomikoek, hiri-lehentasunen aldaketek eta administrazioen erabakiek proiektu horiek paperean baino ez geratzea eragin zuten. Bilbok amestutako eraikin horiek guztiak ez badira eraiki ere, hiriaren testigantza bihurtu dira gaur egun.



Azpiegiturak

Bilboren hazkundeak espazio publikoak eraldatzeko eta komunikazioak hobetzeko proposamenak ere ekarri zituen. Hainbat proiektuk, hala nola Los Arcos edo Garibay plaza (1895), hirirako metropoli-trenbide bat (1920) edo Uribitarteko itsasadarraren gaineko zubi berri bat (1921), erabateko hedapen prozesuan zegoen hiribilduaren beharrei erantzutea bilatzen zuten, mugikortasuna erraztuz eta topaleku berriak sortuz. Ekimen horiek hiriaren etorkizunaren ikuspegi berritzailea islatzen zuten arren, bat bera ere ez zen irudikatu bezala gauzatu.





ABANDO


BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba (dir.) (2003), *Bilbao desde sus alcaldes: Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución democrática y social, 1902-1937*, Bilbao, Ayuntamiento de Bilbao.
- AMANN EGIDAZU, Luis – ALONSO DE MIGUEL, Román. *Nire Bilbao Maitea – Mi Bilbao Querido – My Dearest Bilbao*. Bilbao. Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila – Diputación Foral de Bizkaia Departamento de Cultura, Bilbao Udala Kultura eta Turismo Saila – Ayuntamiento Área de Cultura y Turismo. Santurtzi Argitaratzailea – Editorial, 1992.
- AZPIRI, Ana. *Urbanismo en Bilbao 1900-1930*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2000.
- BASURTO FERRO, Nieves – RODRÍGUEZ-ESCUDERO SÁNCHEZ, Paloma – VELILLA IRIONDO, Jaione. *El Bilbao que pudo ser. Proyectos para una ciudad. 1800-1940*. Diputación Foral de Bizkaia Departamento de Urbanismo – Bizkaiko Foru Aldundia Hirigintza Saila. Bilbao, 1999.
- BASURTO FERRO, Nieves. *El primer ensanche de Bilbao. Oportunismo y vacío legal*. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía 21. (1993) p. 229-242. Eusko Ikaskuntza, Donostia – San Sebastián.
- BASURTO FERRO, Nieves. *El Plan “Lázaro”, el veto a una utopía urbana*. Revista KOBIE Bellas Artes. Bilbao. Diputación Foral de Vizcaya, no IV, 1987.
- FERNÁNDEZ DE LA CIGOÑA CANTERO, Isabel. *Silvestre Pérez, arquitecto del Puerto de la Paz*. (Artículo) Eusko Ikaskuntza, Donostia – San Sebastián, 1999.
- GARCÍA DE LA TORRE, Francisco Javier. – GARCÍA DE LA TORRE, Bernardo Iñigo. *Bilbao arquitectura architecture*. Bilbao. García de la Torre Arquitectos, 2009.
- GONZÁLEZ OLIVER, Javier. *Calles y rincones de Bilbao*. Ayuntamiento de Bilbao, 2007.

ESKER ONAK

Bilboko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Bilbao
Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco

ESKERRIK ASKO



<https://www.facebook.com/Bilbaolzan>



<https://www.youtube.com/BilbaoKultura>



https://www.instagram.com/bilbao_izan



<http://bilbaokultura.eus/bilbao-izan>

ABANDO

